# V. Kapitulua
# EAEko Toki Ogasunak

# Capítulo V
# Haciendas Locales en el País Vasco

## 1. SARRERA

Foru-ogasunen arloan izandako aldaketak, 2008. urteari dagozkionak, koiuntura zail batek eragin dituen izaera ekonomikoko inguruabarrak arintzera bideratzen diren neurriei dagozkie. Hartutako neurriek prozedurari zein toki-mailako zergei eragiten diete.

Hiru lurralde historikoetan, berandutzako errekargu eta interesen erregulazioren aplikazioa ezartzen da, foru-ogasunaren tributuei eta udalerrien zuzenbide publikoko gainerako sarrerei aplikagarri izango dena, bai eta aldizko mugaeguneratzeko eta jakinarazpen kolektiboko zorretarako errekurtso-epea zehazteko ere.

Era berean, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga Lurrari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 13ko 2/2006 Legera egokitzen da, bai eta haren garapeneko araudira ere. Ildo

## 1. INTRODUCCIÓN

Las modificaciones habidas en materia de Haciendas Locales correspondientes al año 2008 corresponden a medidas tendentes a paliar las circunstancias de índole económica que han originado una coyuntura adversa. Las medidas adoptadas afectan tanto a materia de procedimiento, como a los diferentes tributos locales.

En los tres Territorios Históricos se establece la aplicación de la regulación de recargos e intereses de demora aplicables a los tributos de la Hacienda Foral y a los restantes ingresos de Derecho Público de los Municipios, así como la determinación del plazo de recurso para las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva.

Asimismo, se acomoda el Impuesto sobre Bienes Inmuebles a la Ley 2/2006, de 13 de junio, del Suelo y Urbanismo, así como a su normativa de desarrollo. En este sentido se

horretatik, ezartzen da, adibidez, hiri-izaeraren aintzatespena izango dutela lurgintza-legedian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lursailek, lurgintzarako erabilera hori desitxuratzen bada.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, jarduera baten hasiera gertatutzat aintzatesteari dagokionez, handitu egiten da hasitzat aintzatesten den kasu-kopurua. Horrela, ez da aintzatesten jarduera-hasieratzat jarduera baten beraren garapena (zergaren tarifen talde berean sailkatutako jarduera), kasu hauetan:

- Subjektu pasiboa sozietate-talde bati dagokionean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera.

- Jarduera bera garatzen duten beste enpresa batzuen % 25eko edo hortik gorako partaidetza dutenean.

Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan, aldaketa bat sartu da Hiri-lurren Balioaren Igoeraren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren kalkuluan:

- Bizkaian, aldatu egin da zerga arautzen duen foru-arauaren lehenengo xedapen iragankorraren b) idatz-zatia, halako eran, non Ondasun Higiezinen Zergarako ezarritako katastro-balioaren oinarritzat hartu ahal izango den, akordioa lortu ondoren, % 60eko murrizpenarekin, baldin eta lurzoruaren eta eraikuntzaren balioa banakatuta ez balego.

- Araban, aldatu egin da zerga arautzen duen foru-arauaren 4. artikuluaren 2. paragrafoko a) idatz-zatia, halako eran, non babes publikoko etxebizitzen araubideari atxikitako higiezinei dagozkien lursailen eskualdaketetan, zerga-oinarria eskualdaketaren salmenta-prezioari 0,2ko koefizientea aplikatuta kalkulatuko den.

Arabako Lurralde Historikoan, era berean, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko uztailaren 19ko 44/1989 Zergaren 4. artikuluaren 7. paragrafoan bildutako kuotaren hobaria izateko aukera aldatu da, eta gehitu egin da, % 25etik % 90eraino 5 plaza edo gehiagoko ibilgailu turismoen aldeko hobaria, baldin eta ibilgailuaren jabea

establece, por ejemplo, que tendrán la consideración de suelo de naturaleza urbana los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la legislación agraria desvirtuando dicho uso agrario.

En el Impuesto sobre Actividades Económicas se amplia el número de casos en que no se considerará producido el inicio del ejercicio de una actividad. Así, no se considerará inicio de actividad el desarrollo de una misma actividad (actividad clasificada en el mismo grupo de las Tarifas del Impuesto) cuando:

- El sujeto pasivo forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio.

- Se halle participada en más de un 25% por empresas que hayan desarrollado la misma actividad.

En los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia se introduce una modificación en el cálculo de la base imponible del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana:

- En Bizkaia se modifica la letra b) de la DT Primera de la Norma Foral del Impuesto, de manera que en aquellos casos en que no habiéndose revisado los valores catastrales, podrá tomarse como base el fijado a efectos del IBI, con una reducción del 60% siempre y cuando el valor del suelo y la construcción no estuviera desglosado.

- En Álava se modifica la letra a) del apartado 2 del artículo 4 de la Norma Foral del Impuesto, de modo que en las transmisiones de terrenos correspondientes a inmuebles sujetos al régimen de viviendas de protección pública la base imponible se calculará aplicando el coeficiente 0,2 al precio de venta del mismo.

En el Territorio de Álava a su vez, se modifica la posibilidad de bonificación de la cuota recogida en el apartado 7 del artículo 4 de la Norma Foral 44/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, incrementándose desde un 25 hasta el 90% a favor de vehículo turismo de 5 o más plazas cuya propiedad recaiga en

familia ugari bateko kidea bada.

miembro de familia numerosa.

## 2. EAE-KO TOKI-OGASUNEN FINANTZAKETA

### 2.a. Sarrera. EAEko Toki Ogasunen baliabideak

Txosten honen I. kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen zerga-eskumenak zehaztu dira, baita zerga-sistema osatzen duen zerga bakoitzaren lotura-puntuak ere, Toki Ogasunen esparrua osatzen dutenak bereziki. Hala ere, EAEko udalerrien finantza-sistema aztertzea komeni da, Lurralde erkidean indarrean dagoen sistemarekin lotu behar delako. Era horretara osatuko da txosten honek Euskal Ogasunari buruz eman nahi duen ikuspegi orokorra.

Toki-sektore publikoko finantzen jarduna arautzeko orduan erabiltzen den arau-esparruan Foru Arau hauexek dira oinarri, denak ere, toki-administrazioetako ogasunak arautzekoak: Arabako 41/1989 Foru-araua, Bizkaiko 9/2005 Foru Araua eta Gipuzkoako 11/1989 Foru Araua. Aipatutako arau horiek autonomia-printzipio eraginkorrak egiteko eta udal-finantzen burujabetasuna lortzeko finantza-sistema bideratzen dute. Ondorioz, toki-sektoreek finantza-tutoretza txikiagoa behar dute gaur egun. Hori bera gertatu da lurralde erkidean ere.

Ekonomia Itunean, 2002koan, 48. artikuluak (lehen 45. artikulua zen) hauxe dio: “Toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak foru-aldundiei dagozkie; horrek ez du esan nahi, inola ere, EAEko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik”.

Beraz, baterako erantzukizun-sistema ezarri da. Horren bidez, toki-korporazioek beren finantza-baliabideak lortzeko eta erabiltzeko prozesuan parte har dezakete. Era berean, baliabide horien kopurua erabaki eta hura gastatzeko era antolatu dezakete, nahi erara.

## 2. LA FINANCIACIÓN DE LAS HACIENDAS LOCALES EN EL PAÍS VASCO

### 2.a. Introducción. Los recursos de las haciendas locales en el País Vasco

En el Capítulo I de este Informe se detallan las competencias del País Vasco en materia tributaria y los puntos de conexión existentes en cada uno de los tributos que configuran el sistema tributario y, en particular, los que integran el área de las Haciendas Locales. No obstante, es interesante analizar el sistema de financiación de los Municipios del País Vasco, relacionándolo con el sistema vigente en Territorio Común y completando la visión de conjunto que este Informe pretende ofrecer sobre la Hacienda Vasca.

El marco normativo de la actividad financiera del sector público local reside en la Norma Foral 41/1989 de Álava, la Norma Foral 9/2005 de Bizkaia y la Norma Foral 11/1989 de Gipuzkoa, reguladoras de las Haciendas Locales. Estas normas ordenan un sistema financiero encaminado a la efectiva realización de los principios de autonomía y suficiencia financiera municipal, lo que ha supuesto en la práctica una disminución de la tutela financiera sobre el sector local. Disminución que también se ha producido en el ámbito del territorio común.

En el artículo 48 del Concierto 2002 (antes artículo 45) se establece que "las facultades de tutela financiera que en cada momento desempeña el Estado en materia de imposición y ordenación de los tributos y precios públicos de las Entidades Locales corresponderán a las respectivas Diputaciones Forales, sin que ello pueda significar en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades locales vascas inferior al que tengan las de régimen común".

Se ha establecido, por tanto, un sistema de corresponsabilidad, que permite a las Corporaciones Locales participar en el proceso de obtención y empleo de sus recursos financieros y, en la determinación de su volumen y en la libre organización de su

gasto.

Toki-ogasunei buruzko foru-arauek tokiko baliabide-sistema ezarri dute. Sistema horrek baliabide-iturri hauek ditu oinarrian:

- Zerga-alorrekoak ez diren baliabideak edo zuzenbide pribatukoak. Toki-erakundeek kredituak eskura ditzakete, inbertsiokoak ez diren gastuak finantzatzeko; esaterako, aurrekontuen likidazioetan izandako defizitak estaltzeko, eta, premiazko eta urgentziazko arrazoiak gertatzen badira, gastu arruntei aurre egiteko. Aurrekontu-aldaketako espedienteen bidez eskura ditzakete kreditu horiek. Halaber, diruzaintzako eragiketak egin ditzakete, ekitaldiaren amaierako dataz haragoko epemugaz. Horrez gain, beste diru-sarrera batzuk lor ditzakete, bai ondarezko edo zuzenbide pribatuko eragiketak eginez, bai haien eskumenpeko isunetatik eta zehapenetatik dirua eskuratuz.

- Zerga-baliabideak. Zerga, tasak eta zerga bereziak ezberdinak direla kontuan hartu eta aldaketarik garrantzitsuenak atal honetan gertatu direla esan behar da. Horrek udalerriak tokiko finantza-sisteman parte hartzera eta horretaz arduratzera bultzatu ditu.

- Hamar zerga zeuden lehen, orain berriz, bost. Horietako bi, hots, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko udal-zerga aukerazkoak dira Udalarentzat. Ondasun Higiezinen gaineko Zergak, Ekonomia-jardueren gaineko Zergak eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoak, berriz, derrigorrezkoak dira; ez dute zerga ezartzeko erabakirik behar, zerga-elementuren bat aldatu nahi ez badute behintzat. Beste kontzeptu bat ere sortu da: prezio publikoa. Tokiko finantza-araubidea dinamizatzea eta hari errealitate ekonomikora egokitzeko ahalmena ematea da kontzeptu horren helburua.

- Zerga itunduetan, itundu gabekoetan eta beste diru-sarrera publikoetan parte hartzea. Toki-erakundeen finantza-kaudimena bermatzen duen mekanismo

Las Normas Forales de Haciendas Locales establecen un sistema de recursos locales basado en tres fuentes de recursos diferentes:

- Recursos no tributarios o de derecho privado. Las Entidades Locales pueden acceder al crédito para los supuestos distintos a la financiación de los gastos de inversión, cuales son la cobertura del déficit en la liquidación de sus presupuestos y la financiación en casos extremos, por razones de necesidad y urgencia, de gastos corrientes por la vía de los expedientes de modificación presupuestaria. Pueden concertar operaciones de tesorería con vencimiento posterior a la fecha de cierre de un ejercicio. Además, podrán obtener otros ingresos procedentes de su patrimonio o de derecho privado, así como de las multas y sanciones en el ámbito de sus competencias.

- Recursos tributarios. En este apartado, partiendo de la distinción entre impuestos, tasas y contribuciones especiales, es donde se han producido los cambios más importantes, favoreciendo la participación y compromiso de los Municipios en el sistema financiero local.

- De los diez impuestos existentes se ha pasado a cinco, teniendo dos de ellos, el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras y el Impuesto Municipal sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, carácter potestativo para el Municipio. Mientras los Impuestos sobre Bienes Inmuebles, sobre Actividades Económicas y sobre Vehículos de Tracción Mecánica son de exacción obligatoria y no necesitan acuerdo de imposición, salvo que deseen modificar alguno de los elementos del Impuesto. Se ha instrumentado también un nuevo concepto, el precio público, con el fin de dotar al régimen financiero local de un mayor dinamismo y capacidad de adaptación a la realidad económica.

- Participación en los tributos concertados, no concertados y demás ingresos públicos. Se configura como un mecanismo automático que garantiza la suficiencia

automatikoa da. Kaudimen hori konstituzio-zuzenbideak eman dio. Osaera materialari dagokionez esan behar da bilketa likidoaren ehuneko bat dela.

financiera de las Entidades Locales, derivada de su consideración como derecho constitucional. Materialmente está constituida por un porcentaje sobre la recaudación líquida.

## 2.b. Arau orokorrak

EAEko tokiko finantza-sistemaren ildo nagusiak azaroaren 25eko 27/1983 Legean daude jasota, lege hori baita Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoan (LHL).

Arau horren bigarren xedapen gehigarriak arautzen duenez, udalerri guztiek, tokiko inbertsio- eta ekipamendu-premiei erantzun ahal izateko, gutxieneko baliabide-maila bat izan behar dute bermatuta, eta maila hori ez da inoiz ere araubide erkideak ezarritako baliabide-maila baino txikiagoa izango; horrez gainera, Obra eta Zerbitzuen foru-planen aurrekontuko diru-hornidura ere izango dute. Arau horretako 7.a.5 artikuluak dioenez, plan horiek idaztea lurralde historikoen foru-organoei dagokie.

Foru-aldundiei dagozkien esleipen ekonomiko eta finantza-tutoretzaren ereduak bete egiten du argi eta garbi Ekonomia ituneko 48. artikuluan xedatutakoa. Horrenbestez, eredu horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia, batetik, eta foru-organoen eta toki-erakundeen ogasunak, bestetik, elkarren artean erabat artikulatzea. Hori lortzeko, aipatutako erakunde horiek Dirubideen Euskal Kontseiluak (27/1983 Legeak berak sortua) ezarri bezala erabili beharko dituzte irizpideak; hots, EAEko erakunde erkideek aurrekontu-prozedura eta kontabilitate publikoan (Bigarren Xedapen Gehigarria, 3.1) erabilitako irizpide berdinak erabili beharko dituzte.

Era berean, toki-erakundeek itundu nahi dituzten urtebetetik gorako kreditu-eragiketak lurralde historikoenekin eta Autonomia Erkidegoaren zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan (Bigarren Xedapen Gehigarria, 3.2).

## 2.b. Normativa general

Las líneas generales del sistema de financiación local en el País Vasco se hallan contenidas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (LTH).

Esta norma establece, en su Disposición Adicional Segunda, que el conjunto de los Municipios tiene garantizado un nivel de recursos no inferior al que le pudiera corresponder por aplicación de la legislación de régimen común, así como la dotación presupuestaria de los oportunos Planes Forales de Obras y Servicios, cuya redacción y aprobación es competencia exclusiva de los Órganos Forales de los Territorios Históricos, artículo 7.a).5, para atender a las necesidades de inversión y equipamiento local.

En coherencia con este modelo de asignación económica y de tutela financiera que corresponde a las Diputaciones Forales, en clara sintonía con lo establecido en el artículo 48 del Concierto Económico, y a los efectos de conseguir una plena articulación de la Hacienda General del País Vasco con las Haciendas de los Órganos Forales y de los Entes Locales, se establece que éstos deberán aplicar, en la forma que determine el Consejo Vasco de Finanzas (órgano creado por la propia Ley 27/1983), criterios homogéneos a los utilizados por las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de procedimiento presupuestario y contabilidad pública (Disposición Adicional Segunda 3.1).

Así mismo, las operaciones a crédito superior a un año que deseen concertar los Entes Locales, se coordinarán y armonizarán con las de los Territorios Históricos y con la política de endeudamiento de la Comunidad Autónoma en el seno del Consejo Vasco de Finanzas (Disposición Adicional Segunda 3.2).

Arauak ez du, hertsiki, tokiko finantza-sistema sortu, aitzitik, udal-eremura zabaldu ditu foru-erakundeen eta erakunde erkideen finantza-irizpide orokorrak. Irizpide horiek Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki behar ditu.

Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek 2007-2011 aldian egingo dituzten ekarpenak zehazterakoan erabiliko den metodologia onartu zen. Lege horrek, hain zuzen ere, honako hau ezartzen du laugarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoan: lurralde historikoetako foru-erakundeak, Ekonomia Itunean eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean onartuta dituzten eskumenak ere baztertu gabe, arrisku partekatuaren irizpideaz baliatuko dira lurralde historikoei dagozkien zerga itunduetan toki-erakundeen parte-hartzea urtero ezartzeko garaian.

Horrez gain, Dirubideen Euskal Kontseiluak, laugarren xedapen gehigarriko 2. atalean, gomendioa egiten die lurralde historikoetako foru-organoei, ondoren zehaztuko den adierazpenaren emaitzaren % 54,70 erabil dezaten, gutxienez, beren menpeko toki-erakundeentzat; hona hemen adierazpena:

$$\mathbf{RD_i - DF_i}$$

hor:

$RD_i$ lurralde historikoaren baliabide erabilgarriak dira, honela zehaztuta:

$$RD_i = (R_i - D_i - P_i - AG_i - T_i \pm FG_i)$$

Azpi-indizeak i: Lurralde Historiko.

$R_i$: Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira:

- Zerga itunduak direla-eta egindako diru-bilketa.

- Zerga itunduak direla-eta sortutako interes likidoak.

$D_i$: Kupoaren metodologiatik sortutako egokitzapenak dira:

Lejos de concebir un sistema financiero estrictamente local, la norma ha extendido al ámbito municipal los criterios generales de financiación entre las distintas Instituciones Comunes y Forales, que han de determinarse en el Consejo Vasco de Finanzas.

La Ley 2/2007, de 23 de marzo, por la que se aprueba la metodología de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al período 2007-2011, establece en el apartado 1 de la Disposición Adicional Cuarta que los Órganos Forales de los Territorios Históricos, y sin perjuicio de sus facultades reconocidas en el Concierto Económico y la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, utilizarán el criterio de riesgo compartido al establecer anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados correspondientes a los Territorios Históricos.

Además, el Consejo Vasco de Finanzas, apartado 2 de la Disposición Adicional Cuarta, recomienda a los Órganos Forales que destinen a los Entes Locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 54,70% del resultado de la siguiente expresión:

$$\mathbf{RD_i - DF_i}$$

siendo:

$RD_i$ los recursos disponibles del territorio histórico, definidos por:

$$RD_i = (R_i - D_i - P_i - AG_i - T_i \pm FG_i)$$

Subíndice i: Territorio Histórico.

$R_i$: son los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto:

- Recaudación por tributos concertados.

- Intereses líquidos por razón de tributos concertados.

$D_i$: son los ajustes procedentes de la metodología del Cupo:

- Estatuari ordaintzeko kupo likidoa.
- Kupoaren metodologiaren konpentsazioak.
- Ertzaintza handitzea.
- Euskadiri eskumen berriak eskualdatzea.

$P_i$: Kenkari bereziak.

$AG_i$: Erakunde erkideentzako ekarpen orokorra.

$T_i$: erakunde erkideek foru-organoei egin eta metodología honetako 10. artikuluan aipatutako eskualdaketa berrien balioespena.

$FG_i$: Egokitzapenerako Funts Orokor garbia.

$DF_i$: Ondorengo kenkarien batuketa:

- Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei lotutako eskualdaketak finantzatzeko kenkaria, eskumen hori baliatzea foru-erakundeei dagokienean.
- Joan zen 1997-2001 bosturtekoan foru-organoei eskualdatutako eskumenak finantzatzeko kenkaria.
- BEZarekin ordezkatu diren diru-sarreren konpentsazioko kenkaria.
- Kenkari horiek ekitaldi bakoitzerako eguneratuko dira eguneratzeko indizea aplikatuta: RDti/RD0i. Hor, RDti t ekitaldian i lurraldeko baliabide erabilgarriak dira, eta RD0i 2007 oinarriko urtean.

## 2.c. Lurralde historiko bakoitzeko toki-finantzaketa

### 2.c.1. Arabako Lurralde Historikoa

Abenduaren 18ko 22/2007 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko 2008ko Aurrekontu Orokorra betearaztekoak, VI. tituluan, 28. artikuluan, Arabako Lurralde Historikoko toki-entitateen finantziazioa jasotzen du.

Indarrean dagoen araudiari eta aurreikusitako diru-sarrerei jarraiki, toki-erakundeen

- Cupo líquido al Estado.
- Compensaciones de la metodología de Cupo.
- Ampliaciones de la Policía Autónoma.
- Traspaso de nuevas competencias al País Vasco.

$P_i$: Deducciones especiales.

$AG_i$: Aportación General a las instituciones comunes.

$T_i$: valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a los órganos forales a los que se refiere el artículo 10 de la presente metodología.

$FG_i$: Fondo General de Ajuste neto.

$DF_i$: Suma de las siguientes deducciones:

- Deducción para financiar los traspasos asociados a las entidades gestoras de la Seguridad Social, cuando el ejercicio de la competencia corresponde a las instituciones forales.
- Deducción para financiar los traspasos de competencias a los órganos forales efectuados en el quinquenio 1997-2001.
- Deducción por la compensación por ingresos sustituidos por el IVA.
- Estas deducciones se actualizarán para cada ejercicio por aplicación del siguiente índice de actualización: RDti/RD0i. Donde, RDti son los recursos disponibles del territorio i en el ejercicio t, y RD0i en el año base 2007.

## 2.c. Financiación local en cada Territorio Histórico

### 2.c.1. Territorio Histórico de Álava

La Norma Foral 22/2007 de 18 de diciembre de ejecución de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava para 2008 contempla en su Título VI, artículo 28, la financiación de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

El Fondo Foral de Financiación para las Entidades Locales se fija en 218.111 miles de

finantzaketarako foru-funtsa 218.111 mila eurokoa da. Udalek itundu gabeko zergetan duten partaidetza nola ordaindu zehazteko orduan (2002ko Ekonomia Itunaren 51. artikulua), Estatuko Administrazioak ezarri zituen kopuru eta epe berberak finkatu dira. Indarreko araudiaren eta aurreikusitako diru-sarreren arabera, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak 15.430 mila euroko aurrekontua du.

Ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauak arautzen du itundutako diru-sarreran toki-erakundeek (koadrilak, udalak eta kontzejuak) zein eratako partaidetza duten. Foru-arau horren III. tituluan zehazten da toki-erakundeen finantzaketarako foru-funtsaren zenbatekoa nola banandu behar den urtero. Ekitaldi bakoitzerako funts-hornidura lurralde historikoaren baliabide erabilgarrien % 52,3 izan behar da, gutxienez. Toki-erakundeek funts horretatik jasotzen dituzten ekarpenak aurrekontuko zenbatekoaren kargura egiten dira. Kopuru horiek beren ogasunen baliabide arruntak dira, erabilera librekoak eta baldintzarik gabekoak, toki-araubideko araudiaren arabera toki-erakundeek eskaini beharreko zerbitzu guztiei eutsi ahal izateko.

Lau partaidetza-mota hauek daude:

- Zerbitzuak eskaintzeagatik ematen zaien partaidetza, baldin eta zerbitzu horiek Arabako Foru-aldunditik Arabako toki-erakundeetara pasatakoak badira.

- Koadrila bakoitzari ematen zaion partaidetza-kopuru finkoa, 67.613,86 eurokoa, eta gastu konkretuetarako koadrilei emandako beste diru-hornidura batzuk.

- Kontzejuen, Udalen eta Koadrilen oinarrizko partaidetza: Aurreko bi partaidetzak kenduta daudela, FOFELen % 27. Populazio-gune bakoitzak ematen dituen oinarrizko toki-zerbitzu publikoen arabera kalkulatzen da. Honela banatzen da zerbitzu bakoitzari esleitutako zenbatekoa: % 70, gune bakoitzaren biztanle-indizeari erreparatuta, eta, gainerako % 30, zerbitzu-eremuaren sakabanatze-indizeari begiratuta. Zerbitzu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu ondoren, zerbitzua emango duen toki-

euros, conforme a la normativa vigente y los ingresos previstos. El abono de las participaciones municipales en los tributos no concertados (artículo 51 del Concierto Económico de 2002) se ordenó por los mismos importes y periodicidad con que se libró por la Administración del Estado. El Plan Foral de Obras y Servicios se presupuesta en 15.430 miles de euros, de acuerdo con la normativa vigente y los ingresos previstos.

La Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, recoge la participación de las Entidades Locales (Cuadrillas, Ayuntamientos y Concejos) en la imposición concertada. Su Título III está dedicado a la distribución anual del importe de la dotación del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales, dotado para cada ejercicio con al menos el 52,3%, de los recursos disponibles del Territorio Histórico. Las aportaciones que reciben del Fondo las Entidades Locales, con cargo a la cantidad presupuestada, constituyen un recurso ordinario de sus respectivas Haciendas, de libre disposición y no condicionado para el sostenimiento de todos los servicios que deben prestar conforme a la legislación de régimen local.

Se distinguen cuatro tipos de participaciones:

- Participación por la prestación de servicios, que, en su caso, se traspasen desde la Diputación Foral de Álava a las Entidades Locales alavesas.

- Participación fija de 67.613,86 euros a cada Cuadrilla y otras dotaciones a las Cuadrillas, afectadas a la financiación de gastos concretos.

- Participación básica de Concejos, Ayuntamientos y Cuadrillas: 27% del FOFEL una vez deducidas las dos participaciones anteriores. Se calcula en función de la prestación de los servicios públicos locales básicos de cada núcleo de población. La cantidad resultante para cada servicio se distribuye un 70% en función del índice de población de cada núcleo y un 30% en función del índice de dispersión de cada núcleo en que el servicio es prestado. Determinada la cantidad correspondiente a cada servicio, se destina a la Entidad Local que

erakundeari ematen zaio.

- Udalek partaidetza osagarria izango dute bakoitzak bere tamainaren arabera eman beharreko udal-zerbitzuen garrantzia aintzakotzat hartuta: Aurreko a) eta b) partaidetzak kenduta daudela, FOFELen % 73. Udal bakoitzari dagokion partaidetza osagarria honako hauen arabera erabakiko da:

1) 21.035,42 euro finko udal bakoitzari.

2) Gainerakoa:

- % 59, Udalerri bakoitzaren zuzenbidezko biztanle-kopuruaren arabera.
- % 5, Udalerri bakoitzaren per capita ahalegin fiskalaren arabera, zuzenbidezko biztanleriaz haztatuta.
- % 12,25 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 1.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 9,5 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 5.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 9,25 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 15.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 5eko partaidetza izango dute 50.000 biztanletik gorako udalek.

Udal eta koadrila bakoitzari hiru hilean behin ematen zaie dagokien zenbatekoa, urte bakoitzeko urtarrileko, apirileko, uztaileko eta urriko azken egunean; zenbatekoa berdina izango da guztietan. Kontzejuari zenbatekoa sei hilean behin ematea onartu da, urte bakoitzeko urtarrileko eta uztaileko azken egunean; zenbatekoa berdina izango da guztietan. Toki-erakundeek diru-aurrerapenak eska diezazkiekete foru-aldundiei. Diru hori Finantzaketarako Foru Funtsak toki-erakundeei ematen dien partaidetzari esker eskuratzeko dituzten baliabideetatik lor dezakete. Aipatu aurrerakinak ezarrita duten mugaeguna iristerako ordaindu beharko dira, eta, gehienez ere, dirua eman eta hurrengo

efectivamente preste el servicio de que se trate.

- Participación complementaria de los Ayuntamientos en función de los servicios de carácter municipal que según su tamaño deben prestar: 73% del FOFEL una vez deducidas las participaciones a) y b) anteriores. La asignación correspondiente a cada ayuntamiento con cargo a la participación complementaria se determina de la siguiente manera:

1) 21.035,42 euros fijos a cada Ayuntamiento.

2) El resto:

- 59% en proporción a la población de derecho de cada Municipio.
- 5% según esfuerzo fiscal per cápita de cada Municipio, ponderado por su población de derecho.
- 12,25% entre Ayuntamientos de más de 1.000 habitantes, según su población de derecho.
- 9,5% entre Ayuntamientos de más de 5.000 habitantes, en proporción a su población de derecho.
- 9,25% entre Ayuntamientos de 15.000 o más habitantes, según su población de derecho.
- 5% a los Ayuntamientos de más de 50.000 habitantes.

El importe correspondiente a cada Ayuntamiento y Cuadrilla se libra trimestralmente, a partes iguales, el último día hábil de los meses de enero, abril, julio y octubre de cada año; el abono de la asignación aprobada para cada Concejo, se librará semestralmente, a partes iguales, el último día hábil de los meses de enero y julio de cada año. Las Entidades Locales podrán solicitar anticipos de tesorería a la Diputación Foral, a cuenta de los recursos que hayan de percibir correspondientes a su participación en el Fondo Foral de Financiación para las Entidades Locales. Estos anticipos deberán ser reembolsados a su vencimiento y en todo caso quedarán regularizados con el pago a

hiruhilekoan erregularizatuko dira.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, azken batean, lan-tresna da, Arabako Foru Aldundiak toki-erakundeen inbertsio-planetan nola kooperatu behar duen arautzeko; 8/1993 Foru Arauak ez bezala, 19/1997 Foru Arauak ez dio plan horri inongo erreferentziarik egiten, beste Foru Arau batean dagoelako aparte araututa, diru-hornidurak ezartzeko; hau da, lurralde historikoak dituen baliabide erabilgarrien % 3,70 gutxienez. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana apirilaren 14ko 14/1997 Foru Araua dago araututa, eta foru-arau horren bidez araututako lankidetza-tresnetan ezarritako laguntzak hartu ahal izango dituzte Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek, udalek (Gasteizkoak izan ezik) zerbitzu-ermandadeek eta koadrilek.

## 2.c.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udalerriek partaidetzak izango dituzte zerga itunduetako diru-sarreretan; eta partaidetza horiek Udalkutxa - Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa osatuko dute. Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2008erako aurrekontu orokorrei buruzkoa da abenduaren 27ko 9/2007 Foru Araua; hor finkatuta dagoenez, 845.103 mila euroko kreditua emango zaio aipatu funtsari, honako irizpide hauen arabera banatuta:

1) Bilboko Udala finantzatzera zuzenduko den aurrekontu-kreditua 319.952 mila eurokoa izango da.

2) Ustekabeko gastuak eta Udalerrien Elkarteak finantzatzeko erabiliko diren aurrekontu-kredituak 6.338 eta 1.267 mila eurokoak dira, hurrenez hurren.

3) Bilbo kanpoan utzita, gainerako udalerrien finantzaketarako 517.545 mila euroko aurrekontu-kreditua erabiliko da. Honako hauek dira banaketa-irizpideak:

a) Udalerri bakoitzari 81.137 euro emango zaizkio.

b) Gainerakoa honako aldagai eta ehunekoen arabera banatuko da:

- Zenbatekoaren % 80 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko

cuenta del trimestre siguiente al de su concesión.

Al contrario de la Norma Foral 8/1993, en la Norma Foral 19/1997 no se incluye referencia alguna al Plan Foral de Obras y Servicios, instrumento regulador de la cooperación de la Diputación Foral de Álava a los planes de inversión de las Entidades Locales, que es objeto de regulación separada en otra Norma Foral, y cuya dotación se establece en al menos el 3,70% de los recursos disponibles del Territorio Histórico. La Norma Foral 14/1997, de 14 de abril, regula el Plan Foral de Obras y Servicios, pudiendo acogerse a las ayudas establecidas en los instrumentos de cooperación regulados en la Norma Foral los Concejos, Ayuntamientos, excluido el de Vitoria-Gasteiz, Hermandades de Servicios y Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava.

## 2.c.2. Territorio Histórico de Bizkaia

Las participaciones de los Municipios en los ingresos por tributos concertados constituyen el Fondo Foral de Financiación Municipal-Udalkutxa. En la Norma Foral 9/2007, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2008 se fija el crédito presupuestario destinado a dicho fondo en 845.103 miles de euros, distribuido con los siguientes criterios:

1) El crédito presupuestario destinado a la financiación del Ayuntamiento de Bilbao se cifra en 319.952 miles de euros.

2) Los créditos presupuestarios destinados a la financiación de imprevistos y a la Asociación de Municipios se cifran respectivamente en 6.338 y en 1.267 miles de euros.

3) El crédito presupuestario destinado a la financiación del resto de Municipios, excluido Bilbao, se cifra en 517.545 miles de euros. Los criterios de distribución son los siguientes:

a) Cada municipio percibirá una asignación de 81.137 euros.

b) El resto se distribuirá de acuerdo a las variables y porcentajes siguientes:

- El 80% en función del número de

biztanleei erreparatuz.

- % 13 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, ahalegin fiskalaren arabera haztatua.

- Gainerako % 7 honako portzentaje eta aldagaien arabera banatuko da:

  - Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta hezkuntza berezia aintzat hartuta, % 60, ikastetxe publikoetan dauden unitate-kopuruen arabera.

  - % 18, langabeziaren arabera.

  - beste % 18, sakabanaketa-mailaren arabera.

  - Gainerako % 4a, hondartzen arabera.

Aurreko zenbakian aipatutako banaketa-irizpideak aplikatuta Udalerri bakoitzerako eta Udalerri Elkarterako esleitu behar den aurrekontu-kreditutik, dagokion ordainketa egingo zaio bakoitzari, konturako ordainketa gisa; era horretara, beraz, kreditu horren hamabirena emango zaio bakoitzari hilero. Hileko lehen hogei egunetan ordainduko zaie.

## 2.c.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko eman zen abenduaren 27an 10/2007 Foru Araua; horren bitartez, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsari (UFFF) 458.747 mila euro esleitu zaizkio 2008an, Ekonomia Itunaren baliabideetan parte hartzeko. Hori horrela egin da, 1995eko eta hurrengo ekitaldietarako UFFF arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 2. artikuluak araututakoa betetzeko.

15/1994 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, honela banatuko da Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren zenbateko osoa:

1. Gipuzkoako udalerrien artean banatuko da % 99,85. Hauek dira banaketa-irizpideak:

  - 1.100 biztanletik beherako udalerriei % 1,2, zenbateko finko hauek emango zaizkie:

    200 biztanle artekoei........ 84.141,69 €

habitantes de derecho de cada municipio.

- El 13% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio, ponderado por su esfuerzo fiscal.

- El 7% restante en función de los siguientes porcentajes y variables:

  - El 60% en función del número de unidades escolares de educación infantil, primaria y especial existentes en centros públicos.

  - El 18% en función del paro.

  - El 18% en función de la dispersión.

  - El 4% restante en función de las playas.

Con cargo al crédito presupuestario resultante para cada municipio y para la Asociación de Municipios de la aplicación de los criterios de distribución contenidos en el número anterior, se efectuará un pago a cuenta mensual a cada uno de ellos, por importe de la doceava parte de dicho crédito. El pago se efectuará en los primeros veinte días de cada mes.

## 2.c.3. Territorio Histórico de Gipuzkoa

La Norma Foral 10/2007, de 27 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa fija la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal, FFFM, para 2008 en la cantidad de 458.747 miles de euros, en concepto de participación en los recursos del Concierto Económico de acuerdo a lo previsto en el artículo 2 de la Norma Foral 15/1994, reguladora del FFFM para el ejercicio 1995 y siguientes.

Según lo dispuesto en la Norma Foral 15/1994, la cuantía total del Fondo Foral de Financiación Municipal se distribuirá del siguiente modo:

1. El 99,85% entre los Municipios de Gipuzkoa según los criterios siguientes:

  - 1,2% entre Municipios de hasta 1.100 habitantes, con los importes fijos:

    Hasta 200.....................84.141,69 €

201 eta 400 artekoei.........72.121,45 €
401 eta 600 artekoei.........60.101,21 €
601 eta 1.000 artekoei...... 36.060,73 €
1.001 eta 1.100 artekoei...24.040,48 €

- % 90 banatzen da, udalerrien zuzenbidezko biztanleen proportzio zuzenari erreparatuta.

- % 2,15 Donostiari esleituko zaio, hiriburua den aldetik.

- % 3, Udalerri bakoitzaren errentaren alderantzizko proportzioan, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

- % 3,5, Udalerri bakoitzeko ahalegin fiskalaren proportzio zuzenean, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

2. Funtseko zenbatekoaren gainerako % 0,15 EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkartea finantzatzera bideratzen da berariaz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin, hau da, otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan emango dizkie udalerriei hasieran finkatutako zenbatekoen laurdena, gerora likidazioa egin beharko dela jakinda.

Ekonomia Ituneko 51. artikuluak araututakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako toki-erakundeen artean banatu behar ditu itundu gabeko zergen zeharkako ekarpenetatik izan dituen diru-sarrerak.

## 2.d. Lurralde Erkideko Udalerrien Finantzaketa

Udalerriek Estatuaren tributuetan duten partaidetza martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuan (LTOLTB) bildutako arauen arabera zehaztuko da.

1. Udalerri bakoitzaren partaidetza dela-eta Finantzaketarako Funts Osagarrian 2008an egin beharreko konturako ekarpenen kopuru osoa berariaz kontsignatutako kredituan jasoko da Toki Erakundeekiko Finantza Koordinazioko Zuzendaritza Orokorreko 942 M Programaren 32. sekzioko 23. zerbitzuan. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen

De 201 a 400...............72.121,45 €
De 401 a 600...............60.101,21 €
De 601 a 1.000........... 36.060,73 €
De 1.001 a 1.100....... 24.040,48 €

- 90% en proporción directa a los habitantes de derecho de los Municipios.

- 2,15% se asignará a Donostia-San Sebastián, por razón de capitalidad.

- 3% en proporción inversa a la renta de cada Municipio ponderada por el número de sus habitantes de derecho.

- 3,5% en proporción directa al esfuerzo fiscal de cada Municipio ponderado por el número de sus habitantes de derecho.

2. El 0,15% restante del total de la cuantía del Fondo se destina a la financiación específica de la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL.

Trimestralmente, en los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre, la Diputación Foral hará efectivo el pago a favor de los Municipios de la cuarta parte de las cantidades inicialmente previstas, sin perjuicio de la liquidación.

La aportación indirecta mediante participación en tributos no concertados se distribuirá por la Diputación Foral entre los Municipios de Gipuzkoa, de acuerdo a lo previsto en el Concierto Económico (artículo 51).

## 2.d. Financiación de los Municipios en Territorio Común

La participación de los Municipios en los tributos del Estado se determinará con arreglo a las normas contenidas en el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo (TRLRHL).

1. El montante global de las entregas a cuenta de la participación de cada municipio incluido en el ámbito subjetivo del artículo 111 del texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, en el Fondo Complementario de Financiación correspondiente a 2008 se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 32, Servicio 23, Dirección General de

Legearen Testu Bateratuko 111. artikuluak arautútako eremu subjektibokoak izango dira.

Zenbateko hori zehazteko, 2004ko behin betiko partaidetzaren %95a hartuko da kontuan, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 120 eta 121 artikuluetan azaldutako metodologia aplikatuko da.

Finantzaketarako Funts Osagarrian 2008an egin beharreko konturako ekarpenak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidazioa egingo da.

2. Udalerriek Finantzaketarako Funts Osagarrian egin beharreko konturako diru-emateen zenbatekoa jarduneko ekitaldian Estatuko zergetan parte hartzeagatiko finantzazio-aurreikuspenaren % 95ekoa izango da, eta Lurralde Finantzaketaren Zuzendaritza Orokorreko 942 M Programaren 32. Sekzioko 23. zerbitzuan berariaz kontsignatutako kredituan jasoko dira. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 122. artikuluak arautútako eremu subjektibokoak izango dira.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidatu behar da udalerriek 2008ko Estatuko zergetan izango duten partaidetza.

Estatuak, 2008an, 2004ko diru-sarrerei dagokienez egin bezala, aurreko zenbatekoan behin betiko ordainak sartuko dizkie udalerriei, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren erreformarengatik izandako diru-sarreren murrizketa dela-eta.

Zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

a. Udalerri bakoitzak, eskuarki, 2003ko Estatuko zergetan izandako partaidetzaren behin betiko likidaziotik esleitutako zenbateko gordin bera jasoko du. Zenbateko hori 2003ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa den

Coordinación Financiera con Entidades Locales, Programa 942 M.

El citado importe se determinará a partir del 95 por ciento de la participación definitiva del año base 2004 y aplicando la metodología de los artículos 120 y 121 del Texto refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto legislativo 2/2004 de 5 de marzo.

Las entregas a cuenta de la participación en el Fondo complementario de financiación para 2008, serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del montante global.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado se procederá a efectuar la liquidación definitiva.

2. El montante global destinado a realizar las entregas a cuenta a los municipios incluidos en el ámbito subjetivo del artículo 122 del texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, equivalente al 95 por 100 de la previsión de su financiación total para el presente ejercicio por participación en los tributos del Estado, se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 32, Servicio 23, Dirección general de Coordinación Financiera con las Entidades Locales, Programa 942 M.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado, se efectúa la liquidación definitiva de la participación de los Municipios en los tributos del Estado para el 2008.

En la cuantía anterior se integrará, incrementado en los mismos términos que los ingresos del Estado en 2008 respecto de 2004, el montante de las compensaciones definitivas a los municipios por la merma de ingresos derivada de la reforma del IAE.

El importe global se distribuirá de acuerdo con los siguientes criterios:

a. Como regla general cada Ayuntamiento percibirá una cantidad igual a la resultante, en términos brutos, de la liquidación definitiva de la participación en los tributos del Estado de 2003 calculada con arreglo a lo

abenduaren 30eko 51/2002 Legeko 65. artikuluko hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

dispuesto en los apartados dos, tres, cuatro y cinco del artículo 65 de la Ley 51/2002, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales para 2003.

b. Gainerakoa proportzioan banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen eta a) puntuan finkatutako zenbatekoen artean izandako emaitza positiboari erreparatuta. Hala, honako aldagai eta ehunekoak aplikatuko dira:

b. El resto se distribuye proporcionalmente a las diferencias positivas entre la cantidad que cada Ayuntamiento obtendría de un reparto en función de las variables y porcentajes que a continuación se mencionan y las cantidades previstas en la letra a) anterior. A estos efectos, las variables y porcentajes a aplicar serán:

- % 75, zuzenbidezko biztanleen arabera; biztanle-kopurua zehazteko orduan, Gobernuak ofizialki onartuta, Udalerri bakoitzean 2008ko abenduaren 31n indarrean zegoen udaleko biztanle-errolda hartuko da oinarri. Biderkatzaile batek (1,00-1,40) haztatuko du kopuru hori, biztanleria-geruzei erreparatuz.

- 75% en función del número de habitantes de derecho de cada Municipio, según el padrón de población municipal vigente a 31 de diciembre de 2008, oficialmente aprobado por el Gobierno, ponderado por un coeficiente multiplicador (1,00-1,40), según estratos de población.

- % 12,5, Udalerri bakoitzak 2006eko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleek haztatuta, betiere, Gobernuak ofizialki onartuta 2008ko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanle-erroldaren arabera.

- 12,5% en función del esfuerzo fiscal medio de cada Municipio en el ejercicio de 2006, ponderado por el número de habitantes de derecho de cada Municipio según el padrón municipal vigente a 31 de diciembre de 2008 y oficialmente aprobado por el Gobierno.

- % 12,5, zerga-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera.

- 12,5% en función del inverso de la capacidad tributaria.

Udalerriek 2008ko ekitaldian Estatuko zergetan izango duten partaidetzaren zenbatekoak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabiren bat emanez.

Las entregas a cuenta de la participación en los tributos del Estado para el ejercicio 2008 serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del respectivo crédito.

## 3. KUDEAKETA EKONOMIKOA

## 3. GESTIÓN ECONÓMICA

Ondoren EAEko Udalerrietako kudeaketa ekonomikoari buruzko datuak daude ikusgai. Horiek 2007ko ekitaldian likidatutako aurrekontuetatik hartu dira.

Los datos sobre la gestión económica de los Municipios del País Vasco que se exponen a continuación han sido tomados de los presupuestos liquidados del ejercicio 2007.

Datu hauek erakusten dute udalerriak eta eremu txikiagoetako toki-erakundeak areago batu direla, hau da, udalerriak, batetik, eta toki-erakunde txikiak, Administrazio-organo autonomoak eta Enpresa Publikoak, bestetik, estuago elkartu direla aurrekontuetan (azken bi kasuetan, % 50 baino gehiagoko partaidetza badago).

Estos datos contienen la consolidación de los Municipios con las Entidades de ámbito inferior al Municipio, es decir, con las Entidades Locales Menores, los Organismos Autónomos Administrativos y las Empresas Públicas (en los dos últimos casos cuando el Ayuntamiento participa en más de un 50%).

Atal honen amaieran, udal-sektore publikoaren baterakuntza orokorraren laburpen-datuak ageri dira, betiere, kontuan hartuta bai udalerriaz azpiko eremuetako erakundeak bai udalerriaz gaindikoak ere (mankomunitateak eta partzuergoak).

Baterakuntza orokorraz ez da azterketa zehatza egiten; izan ere, mankomunitateek eta partzuergoek udalerriei esleitutako aurrekontua ezin da partaidetza ekonomiko edo aurrekontu bidez egin, eta zerbitzu publikoaren eskaintzari buruzko balioztapenak (biztanleria, adibidez) aintzat hartuta egin behar da. Udal-baterakuntza bakoitzaren emaitza ez litzateke, beraz, udalerri bakoitzaren egoera ekonomikoaren isla zehatza, ezin delako inola ere datu horiek gainerako udalerriek dituztenekin konparatu.

